

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, AIARAKO UDALAREN 2020KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak joan den uztailaren 21ean aho batez onartu zuen Aiarako Udalaren ekonomia eta finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2020ko ekitaldiari dagokiona.

2020ko **Urteko kontuei** dagokienez, HKEEk aldeko iritzia plazaratu du, nahiz ezin ondorioztatu izan dugun Udalaren Balantzeko Ibilgetuko saldoek ondasun eta eskubideen egiazko egoera islatzen duten.

Finantza egoerari dagokionez, HKEEk adierazi du Udalak egoera ekonomiko osasuntsua erakusten duela eta behar hainbateko baliabideak dituela ohiko jarduerari eusteko eta etorkizuneko inbertsioei zorpetu beharrik izan gabe aurre egiteko.

Halaber, udal kontu-hartzaitzat egindako txostenaren arabera, Udalaren **aurrekontua egonkortasun** egoeran dago, eragiketa ez finantzarioen superabita izan baitu. Gainera, gastu zenbagarriak behera egin du aurreko ekitaldikoarekin alderatuz gero eta Udalak ez du zorrik 2020ko abenduaren 31n.

Udalak **zuzentasunez bete du** 2020ko ekitaldian bere jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duen **lege araudia**, nahiz kontratu batean ez diren behar hainbat justifikatu kaudimena egiaztatzeko eskatzen diren baldintzak.